

LIBURUZAIN LANPOSTURAKO ESKAINTZA

Liburuzain kategoriako lanpostua betetzeko premia ikusita –ALDI BATERAKO izendapena–, iragarki hau argitaratzea erabaki da. Behin eskabideak jasota, zerrendaren hurrenkeraren arabera esleituko da izendapena.

Eskainitako izendapena

Zerbitzu-erakundea: Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea. Zamudioko Ospitalea.

Lanpostu funtzionala: Liburuzaina (Dokumentazioan Lizentziatua).

Goizez. Lanaldiaren % 70.

Aldi baterako izendapena, sei hilabete baino gehiagokoa.

Eskaintzaren hartzaileak

Liburuzain kategoriako lanpostu hutsen eta erreserbatuen 2004ko kontratazio-zerrendan (2002ko EPetik eratorritakoa) dauden izangaiak, baldin eta Bizkaiko Lurralde Historikoan inskribatuta badaude eta Dokumentazioko lizentziadun-titulua edo baliokidea badute, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Eskabidea

Mezu honi erantsitako formularioa bete eta bidali beharko da, lanpostua betetzeko eskatzen den tituluaren kopiarekin batera (Dokumentazioko lizentziatura edo baliokidea). *Curriculum vitae* aplikazioan titulua baliozkotuta dutenek ez dute hura akreditatu beharko.

Epea

Formularioa bete eta gero, tituluaren kopiarekin batera (hala badagokio), helbide elektronikoa honetara bidali beharko da: LP-LC@osakidetza.eus, azaroaren 26ko 14:00ak baino lehen. Izan ere, egun horretan amaituko da eskabideak aurkezteko epea.

Izendapena

Liburuzain kategoriako lanpostu hutsen eta erreserbatuen 2004ko kontratazio-zerrendaren hurrenkeraren arabera (2002ko EPetik eratorritakoa) egingo da izendapena, betiere izangaia Bizkaiko Lurralde Historikoan inskribatuta badago eta lanposturako eskatzen den titulua badu.

Prozesuan parte hartu dutenei jakinaraziko zaie prozesuaren emaitza.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko azaroaren 19an